



PRÉVENTION, COLLECTE ET VALORISATION DES DÉCHETS



2023. urtea

ETXE- HONDAKINEN KUDEAKETA IPAR euskal Herrian



 **pays
Basque
euskal
Herria**

COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOA

—
COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION



@communautePB | communaute-paysbasque.fr

I. HONDAKINEN KUDEAKETAREN **ERAGI- Leak** ETA BEREN POLITIKA PUBLIKOA

Partekatutako eskumenak...

Euskal Hirigune Elkargoak **biltzen ditu**

erabiltzaileen etxe-hondakinak eta antzekoak (etxe-hondakinak, bilketa selektiboa eta hondakindegietako hondakinak).

Bil Ta Garbi sindikatuak **balorizatzen ditu**

bildutako hondakinak, hondakinen kudeaketarako 4 sail zabalduz (balorizazio organikoa, ekaien balorizazioa, hondakin geldoen balorizazioa, lanjerik gabeko hondakinen biltegiatzea).

Euskal Hirigune Elkargoaren politika publikoa hondakinen kudeaketari dagokionez

Euskal Hirigune Elkargoak bete behar dituen neurri arautuek dituzte hondakinak murrizteko, birziklatzeko eta balorizatzeko helburuak finkatzen.

Duela zenbait urte plantan ezarritako araudi berriak gure kontsumitzeko ohiturak aldatzen ditu era adierazgarrian, baina, oroz gainera, etxe-hondakinen eta antzekoen kudeaketarako zerbitzu publikoan izanen du eragin handia.

Haatik, euskal elkargoaren **xedea da trantsizio ekologikoan eta energetikoan argi eta garbi engeiatzea**. Hondakinen politikari buruzko bide-orri honek hurrengo urteetan abiarazi beharreko ekintzen norabidea zehazten du.

6 xede nagusi ditu oinarri:

- **Prebentzioa**
etxe bakoitzak ekoizten duen hondakin bolumena gure kudeaketa politikaren lehen erronka delako;
- **Eredugarritasuna**
euskal elkargoa trantsizio ekologikoan engeiatutako ereduak lurraldean izan dadin;
- **Bereizketa**
bere molde guzietan sustatua izan behar dena gure hondakinak baliabide bihurtzeko;
- **Emandako zerbitzua optimizatzea**
lurraldean artean koherentzia eta osagarritasunak sortzea lortzeko;
- **Ekonomia zirkularra**
berrerabilera guneak eta birziklategiak garatuz gure lurraldean;
- **Ohiturak aldatzea**
lurraldeko biztanleak lagunduz beren jokabideak alda ditzaten.

Denen arteko xedeak

Ekonomia zirkular baterako bidea hartzea :

Hondakinen bilketatik tratamenduraino, Euskal Hirigune Elkargoaren eta Bil Ta Garbi sindikatuaren xedea da ekonomia zirkular baterako bidea hartzea, giza jarduerak eragindako ingurumena eta osasunaren arloko kalteak ahal bezainbat murrizteko, gure hondakinen kudeaketa abantailatsua izan dakion gure lurraldeari.

ADEMEk “Ekonomia zirkularren alde engeiatutako lurralde” labela eman dio sindikatuari. Maitena Curutchet Lehendakariordeari emandako labela. Hau da sindikatuak ekonomia zirkular baten dinamikan, hondakina baliabide bihurtzeko aribidean ezarri dituen ekintzak, eta, lurraldearentzat, eredu berri eta ausarta plantan ezartzeko duen gaitasuna onartzeko bidea.

- **INGURUMENEAN DUGUN ERAGINA MURRIZTEA ETA HONDAKINA BALIABIDE BIHURTZE**
- **JARDUERA EKONOMIKOA ETA TOKIKO ENPLEGUAK SORTZE**
- **ERAGILEEN ARTEKO SARE BAT SORTZE ETA LOTURA BAT SORTZE HERRITARREN EKIMENAK ETA URRASPIDAK LAGUNDUZ**

II. 2023KO zenbaki nagusiak

321 963

biztanle, 158 herri biltzen dituen lurralde batean

337

langile tituludun (Euskal Elkargoa) eta 17 animatzaile hondakinen bereizketa eta murrizketarako

52,5 M €

hondakinak biltzeko eta balorizatzeko zerbitzuaren kostua da

25

hondakindegia lurralde osoan banatuak

191 307

tona etxe-hondakin bilduak (etxe-hondakinak + bilketa selektiboa + hondakindegietan bildutako hondakinak), hots 594 kg biztanle bakoitz

% 69

balorizatutako etxe-hondakinen ehunekoa da.

III. ekoizpenen BILakaera 2010 eta 2023 artean

Etxe-hondakinak

> 81 401 Tona

HOTS 253 KG BIZTANLE BAKOITZ 2023AN

Gizabanakoaren ekoizpenaren bilakaera 2010 eta 2023 artean

- %24↓

Hondakindegia:

> 77 543 Tona

HOTS 241 KG BIZTANLE BAKOITZ 2023AN

Gizabanakoaren ekoizpenaren bilakaera 2010 eta 2023 artean

+ %12↑

Bilketa selektiboa

> 32 363 Tona

HOTS 101 KG BIZTANLE BAKOITZ 2023AN


Gizabanakoaren ekoizpenaren bilakaera 2010 eta 2023 artean

+ %27↑

2023an, birziklagarrien desbideratze tasa (estalki birziklagarriak, berina, papera) %28koa da. 32 363 tona gutiago dira etxe-hondakinetan

2010-2023 epean, gizabanakoaren etxe-hondakinen eta antzekoen ekoizpena %5ez ttipitu da, 625 kg-tik 594 kg-ra pasatuz biztanle bakoitz. Erabiltzaileek hondakinak behar diren sailalara gehiago bideratzen badituzte ere, hondakinen ekoizpen orokorra ttipituz doala azpimarratzekoa da.

2023ko bilketa selektiboaren emaitzak



- papera + estalki birziklagarriak
- berina

IV. BALORIZAZIOA: LURRALDE osoa estaltzen duen sarea



BILDUTAKO ESTALKIAK ETA PAPERA ONDOKO GUNEETAN BEREIZIAK DIRA:

%100ean
canopia
BAIONA



ETXE-HONDAKINAK ONDOKO GUNEETAN TRATATUAK DIRA:

%84an
canopia
BAIONA
Balorizazio organikorako eta argindarra eta konposta ekoizteko unitatea.

20 998 TONA KONPOSTA EKOIZTUAK 2023EAN
12 993 MWH ARGINDAR EKOIZTUAK IZAN DIRA.
7 500 MWH BEROTASUN

%16
mendixka
Gunean
SARRIKOTAPEA
Lanjerik gabeko hondakinen biltegiatze instalazioa, balorizazio organikorako sailarekin.

2 979 TONA KONPOSTA EKOIZTUAK 2023EAN

Araudi berri bat

2020ko otsailaren 11ko Ekonomia zirkular baterako Xahutzearen kontrako legeak (AGEC) ekonomia linealeko eredutik ("ekoiztu, kontsumitu, bota") ekonomia zirkularrerako trantsizioa du xede. Eredu honek ekoizkinen bizi ziklo osoa barne hartu beharko du, eko-sorkuntzatik hondakinen kudeaketaraino, kontsumoa barne, xahutzea mugatuz.

AGEC legeak 5 helburu nagusi ditu :

- plastiko botagarria baztertzea,
- kontsumitzaileak hobeki informatzea,
- xahutzearen kontra eta elkertasunezko berrerabileraren alde aritzea,
- zaharkitze programatuaren kontra aritzea,
- eta hobeki ekoiztea.



(adib.: pieza aldagarrien eskuragarritasuna kontsumitzaileei jakinaraztea)




V. ZERBITZUAREN KOSTUA

Hondakinen kudeaketarako zerbitzu publikoaren kostuaren datu batzuk, ADEME* metodoaren arabera, egitura kargak barne:

2023KO LAGUNDUTAKO KOSTUA BIZTANLE BAKOITZ

€Tan, BEZa gabe, biztanle bakoitz



Lagundutako kostua biztanle bakoitz, €tan eta BEZa gabe: hau da BEZarik gabeko gainerateko kostua, irabaziak kenduak zaizkiolarik.

- Etxe-hondakinak
- Estalkiak-Papera
- Berina
- Hondakindegia
- Beste sailak eta pasiboa

➤ Etxe-hondakinen Bilketa eta Tratamendua postuak karga guzien erdia dira (%46). Xahutze guzien bi postu nagusiak dira. Kostuak menperatzeko xedez, indarrak erreformetan bilduak dira: bereizketarako aginduen zabaltzea, jadanik eraginkorra izan delarik, eta etxe-hondakinen bilketaren erreformak jarraitzea. Turismo-hantatzeari lotutako gain-ekoizpenak ere lurraldeari eragiten dio azkarki.

*Ademe : Trantsizio ekologikoaren agentzia

VI. BILANA & ETORKIZUN-AUKERAK



BILANA:

➤ Bereizketarako aginduen zabaltzea:

Bereizketarako aginduen zabaltzea lurralde osoan + harmonizatzea: estalki eta paper guziak bereizten dira eta nahas-mahas botatzen dira.

+%12 BILDUAK

➤ Hondakindegien ordutegia zabaltzea

Erabiltzaileek zerbitzua gehiago erabiltzen dutela kontuan hartzeko.



➤ Hondakindegietako gidaliburu praktikoa!

Hondakindegietako ordutegiari, onartuak diren eta ez diren hondakinei, ekarpen moduei baita balorizazioari buruzko argibide praktikoa azaltzen ditu.



➤ Etorkizunari buruzko kanpaina

Kanpaina maiatz hondarrean abian jarria izan da bereizitako hondakinen etorkizuna oroitarazteko, balorizatuak eta birziklatuak direlarik.



ETORKIZUN-AUKERAK:

Bereizketarako aginduen zabaltzea 2023an gaitututako hozka handi bat izan da.

Gaur egun, erreforma bat baino gehiago dira aribidean, hala bilketa moduen nola zerbitzu-zerga bereziaren harmonizatzearen mailan.

Etxe-hondakinen %40 hartzen dituzten hondakindegietan ere hainbat proiektu dira aribidean:

berrerabilera garatzea, hondakindegietako sail berria plantan ezartzea, hondakindegia zaharberritzea.

Aldi berean, partikularrek hondakin biodegradagarriak askoz gehiago bereizten dituzte.



LEKUAN BEREAN

2023an, BEREIZKETARAKO AHOLKULARIAK 77 246 PERTSONA ETA IKASLE INGURU SENTSIBILIZATU DITUZTE.



COMMUNAUTÉ
D'AGGLOMÉRATION

—
HIRIGUNE
ELKARGOA

—
COMUNAUTAT
D'AGLOMERACION

2023KO JARDUERA TXOSTEN OSOA ESKURATZEKO:

communaute-paysbasque.fr

